

ARITZATXUKO KANTINAREN ETA KOMUNEN EMAKIDA ESLEITZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

1.- Emakidaren xedea

Agiri honek Aritzatxuko kantinaren eta komunen erabilera pribatibo eta arruntaren kontzesio administratiboa arautuko duten baldintza administratibo partikularrek biltzen ditu. Hona hemen ezaugarriak:

- Kokapena: Aritzatxuko hondartza.
- Eraikinaren ezaugarriak: Kantinak 12 m2 ditu, komunak bakoitzak (2) 6m2 eta terrazak 30 m2.
- Udal Ondasunen inbentarioa: 12. Epigrafean 12-66 kodeekin.
- Eraikuntza balioa: 60.475,80 euro.
- Erabilera: Ostalaritza (1. Katgoria) eta komun publikoen zerbitzua.

2.- Emakidaren izaera juridikoa.

Esleipenduna eta udala lotuko dituen harreman juridikoaren izaera izango da jabari publikoko administrazio-emakida. Negozio juridiko hori Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen aplikazio osotik berariaz baztertuta dago, nahiz eta kontratu-araudi publikoaren printzipioak aplikatu behar zaizkion (Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 4. eta 9. Artikuluak).

Harreman juridiko horren arabera, Bermeoko Udalak emakidadunaren esku jarri besterik ez du egiten plegu honen lehenengo klausulan deskribatutako udal-jabari publikoak. Hala ere, udalak ondasunen xedea kontrolatu ahal izango du, emakida honek justifikatzen duen helbururako.

Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 84. eta 93. artikuluetan eta Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 78. artikuluan eta hurrengokoetan aurreikusten eta arautzen da herri-jabariko administrazio-emakida.

Emakida jabetza-eskubidea izan ezik eta hirugarrenei kalterik egin gabe ematen da. Emakida hori emateak ez dio emakidadunari jabari publikoaren titulartasuna lagatzea ekarriko, ezta udalaren jabari-ahalmena ere.

3.- Emakidaduna hautatzeko modua.

Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 93. Artikuluan eta Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 78. eta 80. Artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz, emakida hau lehiaketa bidez esleitu da.

CSV: 07E900128D9D00G4D7J6L3O6H9



Puntuaketan berdinketarik egongo balitz, eskaintza ekonomiko altuena egin duenaren alde erabakiko litzateke esleipena eta, hala ere, berdinketa mantenduko balitz, zozketa bidez.

4.- Esleipen irizpideak.

Esleipena egiteko irizpide hauek hartuko dira kontutan, ustiapena ahalik eta kalitate-prezio onenean egin dadin:

1.- Eskaintza ekonomikoa: 50 puntu.

Puntuak zehazteko formula hau izango da:

Eskaintako prezioa: $P_n = 50 \times (E_n/E_o)$

P_n , eskaintza ekonomikoaren puntuazioa.

E_o , aurkeztutako eskaintza ekonomikorik altuena

E_n , eskatzaileak aurkeztutako eskaintza ekonomikoa.

Eskaintza altuenari 50 puntu emango zaizkio.

2.- Emakidaren objektu diren espazio eta lokalen mantenu eta garbiketa programa: 25 puntu.

Kontutan izanda emakidaren xedeetako bat komunen garbitasuna bermatzea dela eta, erabiltzaile kopuruagatik, garbitasun eta higieena ezin hobea izatea beharrezkoa da.

Gainera, kokagunea kontutan izanda, garbitasun eta higieena produktu ekologikoekin egitea lehenetsi nahi da.

Hori dela eta, lehiatzaileek garbiketa programa aurkeztu beharko dute.

a) Garbiketa programak honela baloratuko dira:

- Eginbeharren maiztasuna eta protokoloa (zer, nola eta egunean zenbat aldiz egingo den): 15 puntura arte.
 - Oso garatua, zehaztasun handiarekin, eta maiztasun aldetik oso egokia bada, 15 puntu emango dira.
 - Oso garatua bada eta zehaztasun handiarekin jaso, baina maiztasun aldetik egokia soilik bada, 10 puntu emango dira.
 - Garapena egokia bada, zehaztasunekin baina ez oso modu garatuan, eta maiztasun aldetik oso egokia bada, 8 puntu emango dira.
 - Garapena, zehaztasunak eta maiztasuna egokiak badira, 6 puntu emango dira.



- Garapena eta zehaztasunak erdipurdikoak badira, baina maiztasuna egokia bada, 4 puntu emango dira.
- Garapena, zehaztasunak eta maiztasuna erdipurdikoak badira, 2 puntu emango dira.
- Garapena, zehaztasunak edota maiztasuna urriak badira, 0 puntu emango dira.

b) Garbiketa produktuei 10 puntu emango zaizkie eta honela baloratuko dira:

- Garbiketa-produktu guztiak ekoetiketadunak izatea: 10 puntu.
- Garbiketa-produktu guztiak 1 ezik ekoetiketadunak izatea: 5 puntu.
- Garbiketa-produktuetatik 2 edo gehiago ekoiketeta gabekoak izatea: 0 puntu.

Erabiliko diren produktu guztien zerrenda zehatza aurkeztu beharko da, markak eta ekoetiketak zehaztuta, eta zerrenda hori loteslea izango da esleipendunarentzat.

3.- Aritzatxuko Hondartza dinamizatzeko plana: 20 puntu

Aritzatxuko Hondartza aisialdiko eremu publikoa izanda, plan honetan, eremuaren izaera ludikoa indartu eta dinamizatzeko ekimen eta proposamenak baloratuko dira, beti ere hondartzaren erabilera arrunta oztokatzen ez duten bitartean.

Ekimenak kantina zabalik dagoen ordutegian egin beharrekoak izango dira, eta 2015eko abenduaren 23an onartutako Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren 10/2015 Legeak araututako segurtasun eta zaintza neurriak, aforoak eta bestelako baldintzak bete beharko dituzte.

Proposatzen diren ekimenen azalpenak jaso beharko dira planean, honako hauek azalduz:

- Ekimen bakoitzaren data eta ordutegia.
- Ekimenaren helburua eta sustatuko diren baloreak.
- Zein publikorentzat dagoen pentsatuta (adinak, etab.)
- Aurreikusten den aforoa (adinak, etab.)
- Aurreikusten diren segurtasun eta zaintza neurriak.

Ekimenen egutegia ere aurkeztu beharko da.

Proposatutako ekimenak modu honetan puntuatuko dira:

a) Emakume eta Gizonen arteko berdintasuna sustatzeko ekimenak: 5 puntura arte.

CSV: 07E900128D9D00G4D7J6L3O6H9



- Ordu bat eta ordu 2 arteko iraupena daukan ekimen bakoitzeko: puntu 0,25 puntu.
- Ordu bitik gora eta 5 ordura arteko iraupena daukan ekimen bakoitzeko: 0.50 puntu.
- 5 ordutik gorako ekimen bakoitzeko: puntu 1.

b) Gizarteratzea edota beharrian bereziak dituztenen inklusioa sustatzeko ekimenak: 5 puntura arte.

- Ordu bat eta ordu 2 arteko iraupena daukan ekimen bakoitzeko: puntu 0,25 puntu.
- Ordu bitik gora eta 5 ordura arteko iraupena daukan ekimen bakoitzeko: 0.50 puntu.
- 5 ordutik gorako ekimen bakoitzeko: puntu 1.

c) Ingurumena zaintzea kontzientziatzeko ekimenak: 5 puntura arte.

- Ordu bat eta ordu 2 arteko iraupena daukan ekimen bakoitzeko: puntu 0,25 puntu.
- Ordu bitik gora eta 5 ordura arteko iraupena daukan ekimen bakoitzeko: 0.50 puntu.
- 5 ordutik gorako ekimen bakoitzeko: puntu 1.

d) Familiarteko eta adin anitzetako pertsonen aisia sustatzeko ekimenak: 5 puntura arte.

- Ordu bat eta ordu 2 arteko iraupena daukan ekimen bakoitzeko: puntu 0,25 puntu.
- Ordu bitik gora eta 5 ordura arteko iraupena daukan ekimen bakoitzeko: 0.50 puntu.
- 5 ordutik gorako ekimen bakoitzeko: puntu 1.

Aurkeztutako plana loteslea izango da esleipendunarentzat eta, ondorioz, proposatutako ekimen guztiak burutu beharko ditu, ez bada udalak kontrakoa adierazten duela.

4.- Lehiatzaileak ipiniko dituen elementu eta altzarien itxura eta ergonomia. Hauek ingurunearekin bat egon beharko dira, eta ume eta nagusien erosotasunerako egokitasuna kontuan izango da. Debekatuta gelditzen da plastikozko altzariak ipintzea eta baita merkatal publizitatea edo babesak daukatenak ipintzea: 5 puntu.

Puntuak modu honetan emango dira:

- Proposatutako altzarien itxura ingurunearekin oso egokia bada eta ergonomia aldetik oso onak badira (beso-euskarri eta bizkarralde ergonomiko eta inguratzailea badute): 5 puntu.

CSV: 07E900128D9D00G4D7J6L3O6H9



- Proposatutako altzarien itxura ingurunearekin egoki bakarrik bada, baina ergonomia aldetik oso onak badira (beso-euskarri eta bizkaralde ergonomiko eta inguratzailea badute): 4 puntu.
- Proposatutako altzarien itxura ingurunearekin egokia bakarrik bada, eta ergonomia aldetik egokiak bakarrik badira (beso-euskarria badute edo bizkaralde ergonomiko eta inguratzailea badute): 2 puntu.
- Proposatutako altzarien itxura ingurunearekin urria bada, baina ergonomia aldetik egokiak badira (beso-euskarria badute edo bizkaralde ergonomiko eta inguratzailea badute): puntu 1.
- Proposatutako altzarien itxura ingurunearekin urria bada, eta ergonomia aldetik ere urriak badira (beso-euskarriak edo bizkaralde ergonomiko eta inguratzailerik ez badute): 0 puntu.

Ipini nahi diren altzarien ezaugarri teknikoak eta argazkiak aurkeztu beharko dira, eta loteslea izango da esleipendunarentzat.

Parte hartzaile bakoitzak, eskaintza bakarra aurkeztu dezake, hau da, eskaria talde baten bidez egiten bada, ezin izango da banaka edo beste talde baten partaidea izan. Horrela egiten bada, eskaintza baztertuko da.

5.- Emakidaren epea

Emakidak urtebeteko iraupena zaingo du, eta aldi hauek izango ditu:

- 2025eko ekainaren 1etik 2025eko irailaren 30era.
- 2026ko martxoaren 28tik apirilaren 12ra.

Epe hori luzaezina izango da eta, beraz, hura betetakoan, jabari publikoaren erabilera pribatiboa utziko da.

Emakidaren amaieran, eraikinak, egindako obra eta instalazio guztiekin, kontserbazio-egoera onean itzuliko dira eta udalari emango zaizkio (salbu eta emakidaren denboran zehar erabilerak eragindako narriadura edo kalte normalak), eta ez du inolako kargarik izango. Emakidadunak ezin izango dio udalari inolako kopururik eskatu bere kontura egindako obra edo instalazioengatik.

Udalak kontzesioa iraungi aurretik berreskuratzeko eskubidea izango du, baldin eta interes publikoko inguruabarrek justifikatzen badute. Udalak erreskatea onartuz gero, emakidadunak konpromisoa hartzen du eraikina eta instalazioak udalaren esku uzteko, hilabeteko epean, udalaren erabakia jakinarazten denetik hasita. Horrela egiten ez badu, agiri hauetan ezarritako kalte-ordaina jasotzeko eskubidea galduko du automatikoki.

6.- Emakidaren kanona

Lizitazioaren oinarri den kanona 300 eurokoa izango da hileko. Proposamen ekonomikoan prezio hori igo egin daiteke.



7.- Bermea

Emakidadunak 1.814,27 euroko behin betiko bermea jarri beharko du, okupatutako jabari publikoaren balioaren %3aren parekoa, 1372/1986 Errege Dekretuaren 90. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Emakida amaitzen denean, egokiak diren ikuskapenak egin ondoren, bermea itzuliko da, ondasunean kalterik sortu ez dela egiaztatzen bada.

Emakidadunari eragotzitako kalterik baleude, kaltearen balioaren zenbatekoan atxikiko zaio ipinitako bermea eta, honekin nahikoa ez balitz, falta diren zatiak premiamenduzko bidea jarraituz kobratuko dira.

8.- Espedientea jendaurrean jartzea

Agiri hau, espedientea osatzen duten gainerako agiriekin batera, udal honetako Idazkaritza Sailean egongo da ikusgai, proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Halaber, klausula administratiboen agiria Bermeoko Udalaren web orriko kontratugilearen profilean kontsultatu ahalko da: <http://bermeo.eus/1470.html>

9.- Lizitazioan parte hartzeko baldintzak

Lizitazioan parte hartu ahalko dute gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko zein juridikoek, espainiarrak zein atzerriarrak, baldin eta administrazioarekin kontratatzeko debeku edo bateraezintasunik ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 71. artikuluekin bat etorritik.

Horretaz gain, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen arabera, ezin dute izan sexu-diskriminazioan erori izanagatiko administrazio-arloko zigorrak.

Era berean, Foru Ogasuneko zerga betebeharrak, udal honekiko tributu-zorrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izan beharko dituzte.

10.- Eskariak aurkeztea

Eskariak 15 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, oinarriak eta deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialarena argitaratu eta biharamunetik hasita, modu hauetako edozeinetan:

- BERHAZ Herritarrendako laguntza bulegoa, Ercilla kalea, 6-8 48370 Bermeo.
- Bermeoko Udaleko kontratatzailearen profilean: <https://bermeo.eus/1470.html>
- Posta bulegoetan, erregelamendu bidez araututako moduan.



Edozein kasutan, dokumentazioa gutunazal edo artxibo itxietan aurkeztu beharko da, eta ziurtagiri digital bidez sinatuta kontratatzailearen profilean aurkezten den kasuetan.

Pertsona juridikoek Bermeoko Udaleko kontratatzailearen profilean aurkeztu beharko dute derrigor. Beste bi aukerak, pertsona fisikoentzat baino ez dira izango.

Eskaria aurkezteak deialdiaren oinarria onartzea ekarriko du. Oro har, ez da eskaerarik onartuko deialdian ezarritako epe ofiziala baino lehen edo ondoren.

11.- Mahaiaren osaketa

Mahaiak kide hauek izango ditu:

Presidente: Elisabet Ercilla Urizarbarrena and., Idazkaritzako AOT (bere orde, Oihane Bilbao Fernandez and.).

Kideak:

Jurdana Uriarte Lejarraga and., Udaleko idazkari orokorra (bere orde, Oihane Bilbao Fernandez and.), Edurne Urrutia Uriarte and., Udal kontu hartzailea (bere orde, Idurre Basterretxea Altonaga and.), eta Iñigo Gonzalez Arias jn. Zerbitzuetako teknikaria (bere orde, Igor Santa Eufemia Bordas jn.).

Idazkaria:

Olatz Ganboa Elorriaga and., Idazkaritza saileko administrari laguntzailea (bere orde, Jone Areskurrinaga Jaio and.)

12.- Dokumentazioa

Eskaintzaileek, bi artxibo elektroniko edo gutun-azal itxi aurkeztu beharko dituzte.

A gutun-azalean edo artxibo elektronikoan ondorengoa jarriko da: ARITZATXUKO KANTINA. A GUTUN-AZALA/ARTXIBOA. DOKUMENTAZIO OROKORRA. Hona hemen gutun-azal edo artxibo honetan sartu beharrekoa:

1. Emakidaduna izateko baldintzak betetzearen zinpeko aitorpena (I. eranskina).
2. Mantenu eta garbiketa programa.
3. Elementu eta altzarien proposamena.

B gutun-azal edo artxiboan honako hau adieraziko da: ARITZATXUKO KANTINA. B GUTUN-AZALA/ARTXIBOA. PROPOSAMEN EKONOMIKOA. Hona hemen gutun-azal edo artxibo honetan sartu beharrekoa:

1. Proposamen ekonomikoa, II. Eranskineko erredua jarraituta egingo dena.
2. Dinamizatzeko plana.

CSV: 07E900128D9D00G4D7J6L3O6H9



Mahaiak, proposamenak aurkezteko epea amaituta, A gutun-azalak edo artxiboak irekiko ditu, eta akatsik egon ezker, zuzentzeko 3 egun laneguneko epea emango dio akatsa egin duen parte hartzaileari.

Akatsak horretarako ezarritako epean zuzentzen ez badira, prozedurarik kanpo geratuko da.

Behin A gutun-azala edo artxiboa zabaldua eta egon zitezkeen akatsak zuzenduta edo horretarako epea amaituta, mantenu eta garbiketa programak eta elementu eta altzarien proposamenak baloratuko dira.

Memoriaren balorazioa egin eta gero, B gutun-azala edo artxiboa zabalduko da horretarako deitutako ekintza publikoan. Eguna eta ordua Bermeoko Udalaren web orrian eta iragarki oholean iragarriko dira, deialdia egin baino egun balioudun bat lehenago gutxienez.

Lizitatzailleek A gutun-azal edo artxiboan aurkeztutako dokumentazio orokorraren kalifikazioaren emaitzaren berri emanez ekingo dio mahaiak bere jardunari, baztertutako lizitatzailleak eta baztertzeko arrazoiak azalduz. Ondoren, mantenu eta garbiketa programetan eta elementu eta altzarien proposamenetan lortutako puntuaketaren berri emango da.

Puntuaketen gaineko informazioa eman ondoren, B gutun-azal edo artxiboa zabalduko da eta proposamenak irakurriko dira.

Ondoren, B gutun-azala edo artxiboa irekiko da eta aurkeztutako proposamenen berri emanen da.

Ondoren, Kontratazio Mahaiak proposamenak baloratuko ditu, orri hauetan jasotzen diren balorazio irizpideen arabera, balorazioaren arabera sailkatuz eta kontratazio organoari egoki iruditzen zaion proposamena eginez.

Esleipen-proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko proposatutako lizitatzaillearen alde administrazioaren aurrean, harik eta kontratazio organoaren erabakiz kontratua esleitu arte. Hala ere, kontratazio organoak kontratua esleitzen ez duenean, egindako proposamenekin bat, erabakia arrazoitu beharko du.

Kontratazio Mahaiaren egintzen emaitza aktetan jasoko da. Akta horiek Bermeoko Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

13.- Prozedura

Proposamenak ireki eta gehienez ere hilabeteko epean, dagokion udal organoak emakidaren esleipena egingo du puntuaziorik altuena lortu duenaren alde.

CSV: 07E900128D9D00G4D7J6L3O6H9



Mahaiak, eskaintzen sailkapenaren arabera, lehenengo sailkatuaren aldeko esleipen-proposamena egingo du eta lizitatzailerari eskatuko dio 15 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta biharamunetik hasita, ondoren zehazten den dokumentazioa aurkezteko:

- Proposamena sinatzen duenaren NANaren kopia.
- Ahalmen nahikoa beste pertsona edo erakunde baten izenean etortzen direnentzat.
- Pertsona juridikoaren kasuan, eraketa- edo aldaketa-eskritura, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikagarri zaion merkataritza-legeriaren arabera inskripzioa beharrezkoa denean. Hala ez bada, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, eraketa-eskritura edo -agiria, estatutuak edo fundazio-egintza erabiliko dira, eta hala badagokio, dagokion erregistro ofizialean inskribatuko dira.
- Emakida honen xede diren erabilera eta jarduerak garatzeko ahalmena daukala, hau da, lehiatzaileen objektu sozialarekin edo jarduerarekin bat datorrela egiaztatzen duen agiria, aurreko atalean aipatutakoak aurkeztu behar ez baditu.
- Ogasunarekiko betebeharrak guztiak egunean dituela egiaztatzen duen Lurraldeko agiria.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- Garatuko den jarduerari dagokion Jarduera ekonomikoen gaineko zergan, dagokion epigrafean, alta emanda dagoela egiaztatzea; horretarako, alta aurkeztuko da, uneko ekitaldiari dagokionez, edo JEZaren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizuneko aitortpena aurkeztuko da. Zerga hau ordaintzetik salbuetsita egonez gero, erantzukizuneko aitortpena aurkeztuko da, zerga horren matrikulan baja eman ez dela dioena, eta salbuespen kasua adieraziko da.
- Behin betiko bermea.
- Erantzukizun zibileko aseguru-poliza.

Udalak udal diru-bilketako datuen biez egiaztatuko du udal honekiko zerga betebeharrak betetzen direla.

Jatorrizko dokumentuak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu beharko ditu.



Horrela egingo ez balu, kontratuari uko egiten diola ulertuko da, eta zerrendako hurrengoari errekerituko zaio aurreko lerroaldeetan adierazitako dokumentazioa aurkezteko.

14.- Emakida formalizatzea

Emakidaduna behartuta dago dagokion kontratua sinatzera eta administrazio-klausula partikularren agiria sinatzera, edukia onartzen duela frogatzeko. Horretarako, 15 egun balioduneko epea izango du, esleipen-erabakia jakinarazi eta biharamunetik hasita. Nolanahi ere, edozein unetan, alderdietako edozeinek kontratua notarioaren aurrean protokolizatzeko eskatu ahal izango du. Notario-, erregistro-edo zerga-gastu guztiak eta emakidadunaren kontura izango dira.

Emakidaren formalizazioa kontratazio-organoaren kontratugilearen profilean argitaratu da, eta gutxienez esleipenaren iragarkian adierazitako datu berak adieraziko dira, kontratua sinatu eta 15 eguneko epean gehienez.

15.- Emakidadunaren betebeharrak

A) Betebehar orokorrak:

- Emakidan emandako ondasunaren erabilera pertsonalki egitea.
- Ondasuna txukun eta garbi mantentzea, eta bere egoera mantentzeko beharreko mantenu lanak egitea. Bere kontura izango dira ura, elektrizitatea, telefono zerbitzua, instalazioak eta haien ingurua garbitzeko gastuak eta kantina ustiatzen sortzen diren gainerakoak ere.
- Udalak egoki ikusten dituen ikuskapenak egin ahal izateko eragozpen edo trabarik ez ipintzea.
- Baimendutako erabilera eta jardueretatik sortu daitezkeen erantzukizunak erantzuteko eta edukiera babesteko aseguru egokia(k) edukitzea.
- Emakidadunak berehala jakinarazi beharko ditu ondasunetan sortutako kalte, arazo edo irregulartasunak, baita berearen erru edo borondatearen kanpokoak badira ere.
- Emakidadunari egotzi ahal zaizkion kalteak badaude, esleipendunak berak konpondu beharko ditu edo udalak konponduko ditu, ordezko exekuzio bidez, emakidadunaren pentzura, emandako epean emakidadunak egingo ez balu.
- Emakidadunak, emakida epea amaitu eta erabileraren xede diren ondasunak administrazioaren esku, libre eta hutsik uzteko betebeharra dauka, eta onartu egiten du administrazioak daukan ahalmena botatzea erabaki eta exekutatzeko.

CSV: 07E900128D9D00G4D7J6L3O6H9



- Jardueraren ustiapenari buruzko lege arauak betetzea, bereziki osasuna babesteari eta kontsumitzaileen, langileen eta gizarte segurantzaren defentsari buruzkoak.
- Kontzesioak ustiatzeko betebeharra enpresa praktika onenen arauei jarraituz bete beharko da.
- Publizitateko jarduerarik ez egiteko eta edozein motatako altzariak edo materiala publizitate-mezuekin ez erabiltzeko betebeharra, kasu bakoitzeko udalak espresuki eta idatziz baimendu ezean.
- Kontratuaren xede den zerbitzua osasun, osasungarritasun eta higiene baldintza egokietan emateko betebeharra, bai instalazioetan bai lan egiten duten langileengan.
- Ustiapenerako beharrezkoak diren obra eta jarduera lizentziak 15 egun balioduneko epean eskatu behar dira, udalak jakinarazten dion egunaren biharamunetik kontatzen hasita, eta ustiapenari 10 egun balioduneko epean ekin behar zaio, jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren azken lizentziak eman zaizkiola jakinarazten zaionetik.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen arabera, sexu-diskriminazioan erori izanagatik administrazio arloan zigortua ez izatea.
- Jardueratik eratorritako tasa eta zerga guztien ordainketa.
- Esleipendunak ezin izango ditu instalazio, zerbitzu edo ondasunen gaineko edozein motatako eskubide errealak kargatu, hipotekatu edo eratu.

B) Betebehar bereziak:

- Kantina jendaurrean zabalik egongo da egunero, 10:00etatik 23:00etara. Ordu horietatik kanpo ezin izango da zabalik egon.
- Gehienez 2 egunez egon daiteke itxita kantina hilabete natural baten barruan, horretarako udalak aurretiaz baimena eman badu eta erabiltzaileei abisua eman bazaie, gutxienez 2 lanegun lehenago.
- Hondartzaren kudeaketarako Bermeoko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren hitzarmena (2025-2029, 2024ko abenduaren 18ko TGBan onartuta. 2024/IDA_ERA_0275) betetzeko, administrazioak eskatzen dizkionak bete beharko ditu esleipendunak.
- Kantinaren komun publikoak zabalik eta garbi edukitzea egunero. Halaber, osasun agintariak jarritako irizpideen arabera garbiketa eta



desinfekzio lanak egin beharko ditu eta kantina itxita dagoen egunetan ere komun publikoak garbitu beharko dira.

- Hondakinei dagokienez, eta indarrean dagoen araudiari jarraituz, hondakinentzako edukiontzi normalizatuak jarriko dira. Zerbitzu Sailak bilketa-puntuak, ordutegia eta egunak ezarriko ditu.
- Komuna hondartzako erabiltzaile guztiei eman beharko die zerbitzua, kantinak funtzionatzen duen orduetan. "ERABILERA PUBLIKOKOA" dela argi eta garbi adierazten duen kartela egon beharko da.
- 21A-113B eraginkortasuneko su-itzalgailuak jarriko dira, lokalaren edozein puntutatik horietako batera gutxienez iristeko moduan. Gainera, instalazio elektrikoaren babeserako koadro elektrikoaren ondoan elur karbonikozko (CO₂) su-itzalgailu bat jarriko da. Suteen aurkako neurriak seinaleztatzeko plaka bat ere jarriko da su-itzalgailuak dauden tokian.
- Gehieneko edukiera izango da erantzukizuneko aitorpenarekin edo jarduera hasi aurreko jakinarazpenarekin batera doan txosten deskribatzailean adierazitakoa, edo udalak ezartzen duen muga, halakorik bada.
- Musika instalazioa, bitartekoak, zaratak eta dardarak jaulkitzea eta beste ingurumen alderdi batzuk arautzen dituen udal ordenantzan xedatutakoari jarraituko zaio.
- Mugikortasun murriztua duten erabiltzaileen irisgarritasunerako behar diren bitartekoak jarriko dira, teknikoki posible ez diren puntuak izan ezik.
- Aurkeztutako Mantenu eta garbiketa programa bete beharko da, ez bada 0 puntu jasotzen dituela esleipen irizpide horretan. Azken kasu honetan, udalak adierazitakoa bete beharko da.
- Elementu eta altzarien proposamena bete beharko da, ez bada 0 puntu jasotzen dituela esleipen irizpide horretan. Azken kasu honetan, plastikozkoak ez izatea eta propaganda gabekoak izatea bete beharko da.
- Dinamizazio plana bete beharko da, beti ere udalak ez badu kontrakoa adierazten.

16.- Emakidadunaren eskubideak

Emakidadunaren eskubideak dira:

- Emakidan emandako ondasuna, baimendutako erabilera eta jardueretarako askatasun osoz erabili ahal izatea, kanpoko inolako oztoporik gabe, emakidak irauten duen bitartean.



- Interes orokorreko arrazoiengatik emakidaren epea amaitu baino lehen bertan behera utzi beharko balitz, izandako galeren arabera kalte-ordaina eskuratzea, galera horrek modu egoki eta egiatian justifikatu ondoren.
- Ondasunaren ustiapenetik lortutako etekinak emakidunarentzat izango dira.

17.- Emakidadunaren erantzukizuna

Emakida jabetza-eskubidea izan ezik eta hirugarrenei kalterik egin gabe emango da.

Kontzesioduna erantzule zuzena izango da emakidaren ustiapena dela eta, funtzionamendu normal edo anormalaren ondorioz sortzen diren kalte-galerengatik. Horretarako, erantzukizun zibileko polizaren kopia baimendua eta ordainagiriak aurkeztu beharko ditu Idazkaritza Sailean, eta hutsegite larritzat hartuko da ordainagiriak mugaegunean ez ordaintzea.

18.- Esleipendunak publikoarengandik jaso beharreko tarifak

Zerbitzua ustiapen pribatuaren araubidean esleitzen da. Ematen diren zerbitzu guztien prezioak, haien arauketan, prezioei buruzko araudi orokorrari lotuko zaizkio, ohiko erabilera, ohitura eta merkataritzako marjinen arabera. Nolanahi ere, emakidadunak unean-unean indarrean dagoen prezio-zerrenda mantendu beharko du jendearentzat ikusgai.

19.- Udalaren eta emakidadunaren egoera emakidaren indarraldian

Bi alderdi kontratugileak behartuta daude beren betebeharrak betetzera, plegu honetan eta aplikatu beharreko araudian ezarritako moduan eta baldintzetan.

Emakidaren xede den higiezia, jabari publikoko ondasuna da, eta halako kalifikazioa izango du. Hori dela eta, egiten diren obra eta instalazioak eskuratuko ditu udalak.

Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduak, kontratuak interpretatu, aldatu, eten eta suntsiarazteari buruz administrazio-kontratazioari buruz ematen duten legeriak eta emakidadunari egiten dituen arau-hausteengatik dagozkion zuzenketak ezartzeko dituen ahalmenak eta prerrogatibak mantentzen ditu udalak.

Emakidadunak kontratatzen dituen langileak haren mende egongo dira, eta ez dute inolako lan-harreman juridikorik izango udalarekin. Haien eskubideak eta betebeharrak lan-arloko eta gizarte-prebentzioko legediaren arabera arautuko dira. Haien ordainsariak eta gizarte-kargak emakidadunaren kontu eskusibokoak izango dira, eta horretarako lan-enpresaren kalitatea izango du.



Halaber, emakidadunak aplikatu beharreko lan arauak bete beharko ditu langileei dagokienez.

Erabiltzaileek zerbitzuari buruz aurkeztzen dituzten kexak, esleipendunak nahitaez izan behar dituen erreklamazio orrietan jasotzeaz gain, udalari jakinaraziko zaizkio, behar diren neurriak har ditzan, egoki iritziz gero.

20.- Arau-haustek eta zehapenak

Bermeoko Udalak zehapenak jarriko dizkio kontzesiodunari plegu honetan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik. Emakidadunak egin ditzakeen arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, eta honako hauek baloratuko dira: hutsegitearen larritasuna, hutsegitearen eragina edo errepikapena, eragindako kalteen zenbatekoa eta arau-haustek lortutako onura.

Arau-hauste arinak dira:

- 1.- Erabiltzailearen bat begirunez ez tratatzea.
- 2.- Udalaren errekerimendu bati ez erantzutea.
- 3.- Baimendu gabeko produktuak saltzea.
- 4.- Instalazioa hondatzea eta zikintzea.
- 5.- Kantina 2 egunetan jarraian edo 2 egun tartekatuan, hilabeteko natural baten barruan ez irekitzea, ezinbesteko arrazoiengatik ez bada.

Arau-hauste larriak dira:

- 1.- Urtebetean bi hutsegite arin egitea.
- 2.- Emakidadunaren betebeharrak ez betetzea, baldin eta instalazioen narriadura larria edo pertsonen edo ondasunen segurtasunerako arriskutsua bada.
- 3.- Udal errekerimendu batean emandako epeak arrazoirik gabe atzeratzea.
- 4.- Sektoreko legerian edo emakidaren xede den jarduerari eragiten dioten udal-ordenantzetan jasotako xedapenak ez betetzea.
- 5.- Erantzukizun zibileko polizaren ordainagiriak mugaegunean ez ordaintzea.
- 6.- Plegu honetan adierazitako betebeharrak ez betetzea.

Arau-hauste oso larriak dira:

- 1.- Urtebetean bi hutsegite larri egitea.
- 2.- Emakidaren xede den ondasuna baimendu gabeko jardueretarako erabiltzea.
- 3.- Baimenik gabeko edozein pertsonak egindako ustiapena.
- 4.- Obra gehigarriak egitea udal baimenik gabe.
- 5.- Emakidunaren jarduna, jabari publikoaren edo instalazioen balio-galera eragitea.
- 6.- Tributuei, lanari, gizarte-segurantzari, osasunari edo kontsumoari buruzko legediaren arau-haustek, dagokion araudian larritzat jotzen direnak.

Arau-hauste guztiak espediente kontraesankor baten bidez zehatuko dira, eta isunak emakidaren iraungipena edo ezeztapena galarazi gabe aplikatuko dira, bidezkoa bada.



Zehapenen zenbatekoa honakoa izango da:

- 1.- Arau-hauste arinentzat: 750,00 euro arte.
- 2.- Arau-hauste larrien kasuan: 751,00 eta 1.500,00 euro artean.
- 3.- Arau-hauste oso larriak: 1.501,00 eurotik 3.000,00 eurora.

Isunaren zenbatekoa mailakatzeko, kontuan hartuko dira eragindako kalteen zenbatekoa, ukitutako ondasun edo eskubideen balioa, erantzuleak behin eta berriz egin izana eta erantzulearen erruduntasun-maila. Inguruabar aringarritzat hartuko da arau-hausleak errekerimenduan adierazten den epean sortutako egoera zuzentzea, isuna erdira murrizteko.

Zehapenaz gain, jabariari edo instalazioei kalteak egiten bazaizkie, eta ustekabeko edo ezinbesteko kasuetan ez badira, administrazioak kaltetutako elementuak lehengoratzeko eskatu ahal izango du. Zehapenak jasotzeko, premiamendu bidea erabili ahalko da.

21.- Emakidaren amaiera

Plegu honetan aurreikusitakoez gain, hauek dira emakida iraungitzeko arrazoiak:

- a. Epea amaitu ondoren iraungitzea.
- b. Udala eta emakidaduna ados jartzea.
- c. Titularra hil edo enpresa desegitea.
- d. Emakida erreskatatzea.
- e. Emakidaren titularraren betebeharrak, organo eskudunak deklaraturakoak, oso modu larrian ez betetzea.
- f. Emakidadunak uko egitea.
- g. Kanona edo tasa ez ordaintzea, bai eta kontzesioaren titularraren betebeharren beste edozein ez-betetze larri ere, kontzesioa edo baimena eman zuen organoak deklaratuak badira.
- h. Ondasuna desagertzea edo aprobetxamendua agortzea.
- i. Ondasunaren desafektazioa. Kasu horretan, 33/2003 Legearen 102. artikuluan ezarritakoaren arabera likidatuko da.
- j. Foru Ogasuneko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean ez edukitzea.
- k. Aseguru polizarik ez edukitzea.
- l. Baimendutako erabilera eta jarduerak garatzeko legediak agintzen dituen betebeharrak eta baldintzak ez betetzea.

Arrazoi horietakoren batengatik kontzesioa iraungitzen bada, emakidadunak ez du kalte-ordainerako eskubiderik izango.

22.- Itzultzea

Emakida amaitu edo iraungitzean, arrazoiak edozein dela ere, emakidaren xede den higiezia eta obra eta instalazio guztiak, doan itzuliko zaizkio udalari kontserbazio- eta funtzionamendu-egoera onean, erabileraren ondoriozko



narriadura arruntak eta edozein karga mota librekoak izan ezik, eta udalak ez dio inolako zenbatekorik ordaindu beharko emakidadunari, erreskateagatik edo udalari egotz dakiokkeen beste edozein arrazoirengatik kontzesioa iraungitzen denean izan ezik.

Emakida-epea amaitu baino hiru hilabete lehenago, udalak teknikariak izendatuko ditu instalazioen egoera ikuskatzeko, eta, ikuskapen teknikoak ikusita, beharrezkotzat jotzen diren konponketa-lanak eta obrak aurreikusitako baldintzetan egiteko aginduko du. Egin beharreko konpontze edo berritze lanak emakidadunaren kontura izango dira.

Aurrekoa gorabehera, emakidadunak irregulartasun ororen berri eman beharko die udal zerbitzu teknikoei, baldin eta horrek higiezinaren narriadura eragiten badu eta, ondorioz, eraikina udalak onartzen ez dituen baldintzetan itzultzen badu.

Udalak jaurtiketa erabaki eta gauzatzeko ahalmena izango du bidezkoa den kasuetan.

23.- Emakidaren erreskatea

Udalak beretzat gordetzen du kontzesio administratiboa iraungi baino lehen indarrik gabe uzteko ahalmena, baldin eta interes publikoko inguruabarrek justifikatzen badute, sortzen diren kalteak ordainduz, hala badagokio. Kalte-ordainaren ordainketarekin batera egin beharko da hustea, baldin eta udalak emakidadunari uzten badio. Baldintza hori bete ezean, ezin izango da emakidaduna kaleratu.

24.- Emakidaren lagapena, eskualdaketa edo errentamendua

Espresuki debekatuta dago plegu honen xede den kontzesioaren lagapena, eskualdaketa edo errentamendua hirugarren bati ematea.

25.- Jarduera gauzatzeko hizkuntza-baldintzak

Emakida hau Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuko 6. artikuluan ezarritako hizkuntza-ofizialtasun bikoitzeko erregimenari lotuta dago, eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoak, eta hori garatzen duen araudiak (azaroaren 19ko 179/2019 Dekretua, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa) arautzen dute; beraz, kontzesiodunak bete egin beharko ditu hizkuntza-eskubide horiek.

Aurrekoan adierazitakoren kalterik gabe, ahal den kasuetan, euskararen erabilera lehenetsiko da. Helburu hori lortzeko, udaleko Euskara Sailaren laguntza izango du emakidadunak.

26.- Konfidentzialtasuna eta datu pertsonalen tratamendua



Bermeoko Udaleko Idazkaritza Sailak, 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokienez, pertsona fisikoak babesteari buruzkoan ezarritakoa betez, eskatzaileei jakinarazten die beren datu pertsonalak udal-kudeaketaren berezko zereginak egiteko fitxategietan sartuko direla.

Enkantea ebatzi ondoren, esleipen emaitza iragarki taulan eta udalaren web orrian argitarako dira.

27.- Legedi aplikagarria

Emakida honi honako legedia aplikatuko zaio:

1. Administrazio Publikoen Ondarea arautzen duen 33/2003 Legea.
2. Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen 1372/1986 Errege Dekretua.
3. Sektore Publikoen Kontratuak arautzen dituen 9/2017 Legea.
4. Zuzenbide administratiboko arauak.
5. Zuzenbide pribatuko arau orokorrak.

Horiek horrela, baldintza agiri honetan aurreikusten ez den guztirako, edozein zalantza argitu eta emakidaren baldintzak interpretatzeko, aipatutako legediak aurreikusitakoa jarraituko da.

28.- Izaera juridikoa

Emakida honen ondorioz hartu daitezkeen erabakien izaera administratiboa da eta bide administratiboari amaiera emango diote. Hori horrela, zuzenean aplikagarriak izango dira, udalaren aurrean edota administrazioarekiko auzibidean errekurritzeko eskubidearen kalterik gabe.

CSV: 07E900128D9D00G4D7J6L3O6H9



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E900128D9D00G4D7J6L3O6H9

Sinadurea eta data

CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 02/04/2025 11:41:40

EXPEDIENTE ::
2025IDA_ERA_0029
Data: 07/02/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



I ERANSKINA
Erantzukizunpeko adierazpena

.....jaun/andrea,.....
..... helbidea duena,..... NAN zenbakiarekin, bere izenean
edo..... izeneko enpresaren
ordezkaritzan,....., helbidea duena eta
..... telefono zenbakia....., eta IFZ.....
Klausula administratibo Partikularen pleguan aurreikusitako eran kreditatzen dudana,
zer adierazten dut:

NIRE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DUT

- 1.- Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez, Aritzatxuko kantinearen eta komunaren emakida administratiboa esleitzeko deialdia ezagutu ahal izan dudala, eta deialdi honetako oinarriak jasotzen dituzten agiriak aztertu eta ezagutzen ditudala.
- 2.- Ados nagoela eta, borondatez, horren esku geratzen naizela eta aurrekoa, oso-osoarik eta aldaketa barik onartzen dudala.
- 3.- Aipatutako emakida eskuratzeko baldintza guztiak betetzen ditudala eta emakida indarrean dagoen bitartean beteko ditudala.
- 4.- Baimendutako erabilera edo jarduera garatzeko legeriak eskatzen dituen baldintzak beteko ditudala uneoro, eta behar diren baimenak eskuratu eta mantenduko ditudala emakidak irauten duen denbora guztian zehar.
- 5.- Ez dudala zorrik Bermeoko Udalarekin, ez Foru Ogasunarekin, ezta Gizarte Segurantzarekin ere, eta deialdi honetan parte hartzeko ezelako debekurik ere ez daukadala.
- 6.- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatik zigor edo administrazio arloko zehapenik ez dudala.
- 7.- Ez nagoela Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan administrazioarekin kontratatzeko ezarritako debekuetan, ezta bere kasuan, ordezkatzen dudana pertsona juridikoaren administrazioarekin bat ere.
- 8.- Era berean, hitz ematen dut, kontratua esleitu aurretik edo hala eskatzen didaten edozein unetan, baldintza-agirietan adierazten diren edo lege-mailako arau batek eskatzen dituen agiriak baditudala egiaztatuko dudala, eta agiri horiek baliozkoak direla.
- 9.- Bermeoko Udalarai baimena ematen diodala emakida honi lotutako eskakizun, berri emate eta jakinarazpen mota guztiak posta elektronikoki bidez bidatzeko behean ageri den helbidera, legeak ezarritako ondorio juridikoekin.

Helbide elektronikoa:

(Lekua eta data)

Sinadura:



II ERANSKINA

Proposamen ekonomikoaren eredua

.....jaun/andrea,.....
..... helbidea duena,..... NAN zenbakiarekin,
bere izenean edo..... izeneko enpresaren
ordezkaritzan,....., helbidea duena eta
..... telefono zenbakia....., eta
IFZ.....,

ADIERAZTEN DUT:

I.- Aritzatxuko kantinearen eta komunen emakida esleitzeko lizitazioaren iragarkiaren berri izan dudala.

II.- Nik edo ordezkatzan dudana enpresak indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintza eta irizpide guztiak betetzen ditugula.

III.- Emakida hori lortzeko, proposamen ekonomiko hau egiten dut:

ARITZATXUKO KANTINAREN ETA KOMUNEN EMAKIDA:
..... euro/hileko
(zenbakietan/hitzetan).

(Lekua eta data)

Sinadura:

CSV: 07E900128D9D00G4D7J6L306H9



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E900128D9D00G4D7J6L306H9

Sinadurea eta data

CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 02/04/2025 11:41:40

EXPEDIENTE ::
2025IDA_ERA_0029
Data: 07/02/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Tratamenduaren arduraduna	Bermeoko Udala. Idazkaritza Saila.
Datuen babesaz arduratzen den pertsonaren harremanetarako datuak	dbo@bermeo.eus
Tratamenduaren helburua	Aritzatxuko kantinaren eta komunen emakida esleitzeko eskaeren kudeaketa
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa	DBEOren 6.1.b) artikulua Azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa, eta ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena. Aritzatxuko kantinaren eta komunen emakida esleitzeko administrazio-klausula partikularren agiria
Hartzaileak	Ez zaie datu pertsonalik lagako hirugarrenei
Kontserbatzeko epea	Datuak bildu diren xederako gordeko dira eta/edo lege ezarritako epeak iraungi arte sor daitezkeen erantzukizun guztiak preskribatzeko. Era berean, interesdunarekin izandako harremanetik erator litezkeen erreklamazioak egin edo babesteko aurreikusitako epean gordeko dira. Halaber, datuei artxibo eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatu zaie.
Pertsonen eskubideak	Datuak babesteko ordezkariaren bidez, interesdunak datuak eskuratu, aldatu edo, hala badagokio, bertan behera utzi, datuen aurka egin edo tratamendua mugatzeko eska dezake.

CSV: 07E900128D9D00G4D7J6L3O6H9



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E900128D9D00G4D7J6L3O6H9

Sinadurea eta data

CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 02/04/2025 11:41:40

EXPEDIENTE ::
2025IDA_ERA_0029
Data: 07/02/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

